



Andoaingo Udala



Udal gobernuak eskatu dio Aldundiari zuhurtziaz joko dezala N-1 eta A-15 errepideen lotunearen eztabaidan

- **Udal gobernuak kezkaz hartu ditu maria ubarretxena Azpiegitura diputatuak asteburuan gaiaz esandako hitzak**
- **Andoaingo herriaren etorkizunarentzat berariazko gaia izanda, ematen diren urratsak elkarlanetik bideratzea eskatu du.**

Andoainen, 24-01-22.- Udal gobernuak arduraz hartu ditu asteburu honetan Maria Ubarretxena Gipuzkoako Azpiegitura diputatuak N-1 eta A15 errepideen lotuneaz esan dituenak.

Pasa den urriaren 4an bildu zen Andoaingo alkatea Andoni Alvarez Azpiegitura diputatuarekin; proiektu honek Andoaingo herrian zuen alde askotariko inpaktuaz ohartarazi zuen foru ordezkaria, eta ordura arte gauzatutako proiektuak alde batera utzi, eta herriarekin batera, etorkizunerako bidea eskutik helduta urratzea eskatu zion.

Udalak gaiarekiko eskumenik ez duela esatea, errealitatea desitxuratu besterik ez du egiten. Andoaingo herriak pairatzen ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak gai honetan izan duen ibilbide okerraren ondorioak, eta Andoaingo herriak du gai honekiko eduki beharreko sentsibilitatea eta ardura. Berriro diogu: GFAk trafiko arazo bat besterik ikusten ez duen tokian, andoaindarrok herri arazo bat ikusten dugu. Eta arazo orokor horri irtenbidea eman behar zaio.

Udalak, Aldundiaren jardueraren kontrara, sentsibilitate ezberdinak biltzen dituen Mahaia eratua du herri mailan; jakina da askotariko iritziak jasotzen dituela auziak, baina ezinbesteko deritza Foru Aldundiak horiek guztiak aintzat hartzea, asko dagoelako jokoan: epe ertain eta luzerako Andoainen eraikuntzaz ari baikara. Era berean, Udala lanean ari da proiektu honen alternatiba bat mahai-gainean jartzeko; hau idazteko plegua hurrengo egunetan ateratzea espero da.

Udalak bere esku dagoen guztia egiteko konpromezua hartzen du herritarrentzat alternatiba egokiena dena gauzatzeko.